

DROGAK

Garuna eta gizartea

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA

2025eko irailaren 28tik azaroaren 28ra

Museo de Ciencias
Universidad de Navarra

Gizakiak mendeetan izan ditu drogak inguruan, baina **zer dakigu, benetan, substantzia horiei buruz?**

Erakusketa honek gonbita egiten digu zientziaren ikuspegitik ezagutzeko substantziek garunean nola diharduten, zer ondorio dakartzaten eta gure bizitzan zer eragin duten.

Inplikazio sozialei, historikoei eta ingurunekoei erreparatuta, drogen kontsumoak eta ekoizpenak kultura, ekonomia eta ingurunea nola markatu dituzten aztertzeo bidea ematen du.

Ibilbide interaktibo eta gogoetatsu bat proposatzen du, fenomeno konplexu bat hobeto ulertzeko: biologiatik eta osasunetik gizartera eta ingurunera.

Erakusketa **elebiduna** da (gaztelaniaz/euskaraz), eta egokitua, **irakurketa errazaz, ikus-entzunezko elementuez, ukipenezkoez eta interaktiboez** hornitua. Audiogidak ere baditu, bai eta adin eta behar desberdinetara egokitutako tailerrak ere.

Zergatik gelditzen dira esperientzia batzuk gure oroimenean betiko iltzatuta eta beste batzuk berehala ahanzten dira?	Garunaren zer atalek “erabakitzen” du gauza berri bat probatzea edo ezetz esatea?	Nola alda daiteke zure garuna, substantzia batekin esperientzia bakar bat izanda?
Zergatik dira substantzia batzuk sendagaiak egoera batzuetan eta legez kanpoko drogak beste batzuetan?	Nola eragiten die drogen laborantzak ingurumenari eta tokiko komunitateei?	Zer lotura dago herrialde batzuetako kontsumoaren eta beste batzuetako biolentziaren artean?
Nork irabazten du eta nork galtzen, narkotrafikoaren negozioan?	Zer inpaktu du narkotrafikoak munduko eremu desberdinetan zure adineko pertsonen bizimoduan?	Zergatik daude droga batzuk gizartean onartuak (adibidez, alkohola) eta beste batzuk debekatuak?

Bisita motak

Bisita librea (dohainik)

- Arratsaldez.
- Taldeko 30 pertsona, gehienez.
- 10 pertsonatik gorako taldeentzat, aldez aurretik erreserba egitea komeni da.
- Unibertsitateko ikasgelen eremuan kokatuta dago erakusketa, eta, hortaz, litekeena da bisita jarduera akademikoarekin batera egokitzea.

Talde eta ikastetxeentzako bisita gidatuak (goizez, aldez aurretik erreserba eginda)

■ Bisita gidatua + tailerra +filma

- Gutxienez 15 pertsona (nahitaezkoa, 40 pertsonatik gorako taldeentzat), eta gehienez 70.
- Barne hartzen ditu: dokumentala, tailerra eta erakusketan barrenako ibilbidea.
- Prezioa: 4 € pertsonako.
- Iraupena: 2 ordu.

■ Bisita gidatua + tailerra

- Gutxienez 4 pertsona, eta gehienez 40.
- Barne hartzen ditu: bisita gidatua eta tailerra.
- Prezioa: 3,50 € pertsonako.
- Iraupena: 1 ordu.

■ Bisita gidatua

- Gutxienez 4 pertsona, eta gehienez 40.
- Barne hartzen du: ibilbide gidatua.
- Prezioa: 2,50 € pertsonako.
- Iraupena: 30-40 min

Publiko gomendatua: **10 urtetik aurrera.**

Bisita gidatuari loturiko jarduera osagarriak



***My Love Affair with the Brain* dokumentala (1 ordu)**

Hainbat sari jasotako eta kritikak goretsitako dokumental honek garunaren ahalmena eta neurozientzia modernoaren aitzindari Marian Diamond hurbiletik ezagutzeko aukera emango die ikasleei.

Tailer experimentalak

Taldearen adinari egokitutako esperimentuak eta dinamikak: proba forentseak, garunaren ereduak eraikitzea edo jolas kolaboratiboak.

Erakusketan barrenako ibilbidea

Gidari espezializatuarekin, gaztelaniazko eta euskarazko audiogidekin, material ukigarriekin eta txoko interaktiboekin.

Bisitak adinaren eta beharren arabera egokitu daitezke. Talde handietan, ikasleak banatu egiten dira, eta txandaka igarotzen dira jarduera guztietatik, esperientziaren kalitatea bermatzeko.

Nola egin erreserba

Erreserbatu bisita hemen: museociencias@unav.es

Ekonomia erakusketa bisitatzeko eragozpena ez izatea nahi dugu. Premiazko egoeretan, bekak edo laguntza bereziak eman ditzakegu, ikasle guztiek izan dezaten parte hartzeko aukera.

Nola iritsi



Iruñetik

Zatoz Museora paseatzen, bizikletaz edo autobusez. Unibertsitateko campuseko Zientzien Eraikinean gaude (Irunlarrea kalea z/g).

- **Bizikletaz.** Nafarroako Unibertsitateak campusa zeharkatzen duen bi-degorri bat du, eta bizikletentzako aparkaleku-guneak daude Zientzien Museoa.
- **Garraio publikoan.** Autobusez ere etor zaitezke, hiri barruko 1, 4, 2, 15 eta 18. lineak erabiliz. Hurbileneko geltokia Nafarroako Ospitale Unibertsitarioaren parean dago, Pio XII.a etorbidean.
- **Autoz.** Autoz etortzea erabakiz gero, Nafarroako Unibertsitateko Jantoki Unibertsitarioen eraikinaren alboan aparkatu dezakezu, edo Irunlarrea eta Fuente del Hierro kaleetako aparkaleku publikoetan, baita Nafarroako Ospitalearen lurpeko aparkalekuan ere.



Museoa egokituta dago
orgatxoak edo gurpil-aulkiak
sartzeko.



Baimenduta dago eraikinera
itsu-txakurrekin sartzea.



Argazkiak atera daitezke.
Zabaldutazazu sare sozialetan!



Museoak ez du ez leihatilarik ez
arropazaindegirik.



Museoa navilens kodeez
seinaleztatuta dago.



Edaririk edo janaririk ekarritz gero,
erabili lehen solairuko
kafetegi-eremua, mesedez.

Honakoen
laguntzarekin:



Kolaboratzaileak:

